



MEÑAKAKO UDALA

(BIZKAIA)

MEÑAKAKO UDALAK 2019.10.17AN EGINDAKO UDAL BILERAN AHO BATEZ ONARTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

1.- Meñakako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeke eskubidea.

2.- Meñakako Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.

3.- . Meñakako Udalak nabarmentzen due Kataluniako Procesaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.

4.-Meñakako Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordeztu eta herriari galdetu beharrean.

5.- Meñakako Udalak Estatuko botereei eskatzen diete, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta era berean, erbesteratu politikoek aurkako auzibideak bertan bera utz ditzala.

6.- Meñakako Udalak elkartasuna adierazten diete Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei



Alkatea.- Aitor Ugarte Torre